

## **ALKATETZAREN MEMORIA: 2026KO AURREKONTUA**

### **I.- SARRERA**

2026. ekitaldiaren Aurrekontuak onesteko bideratu den expedientearen barruan, nahitaezkoa da Alkatetzaren Memoria hau egitea.

2026rako aurrekontuaren zirriborroa gobernuko bi alderdi politikoek (PSE- EE eta EAJ- PNV) elkarrekin egindako lanaren emaitza da; beraz, zirriborroak onartzeko behar den gehiengoa du.

Memoria honek bi helburu ditu:

1.- Gobernu-taldeak 2026. ekitaldirako prestatu duen aurrekontu-zirriborroaren partidarik esanguratsuenak banakatu eta argitzea, gure herriaren eraldaketa bultzatzen jarraitzeko, dituen erronka ugariei aurre egiteko eta, azken finean, gure bizilagunen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

2.- Alkatetza honek aurrekontua onartzeko Udaleko beste alderdi politiko batzuekin izan duen negoziazio-prozesuaren berri ematea. Prozesu hori PSE- EE/EAJ- PNV koalizio-gobernuak elkarritzetarako eta negoziaziorako duen jarreraren adierazpide garbia da.

Azaldutako guztiagatik, 2026ko ekitaldirako aurrekontuen zirriborro honen asmoa eta helburua Eibarko herritarren interesei zerbitzu ematea da. Tresna bat da egungo koalizio-gobernuak (adierazitako helburuak gogoan) proposatu dituen ideiak eta proiektuak kudeatzeko.

Aurrekontu-zirriborro honetako gastuen eta diru-sarreren kapituluak aztertu aurretik, 2025eko aurrekontuetako memorian egin nuen bezala, garrantzitsutzat jotzen dut, alde batetik, Next Generation funtsak aipatzea, eta, bestetik, Deabarrena LJE. (Lehentasunez Jarduteko Eremua)

### **1.- Next Generation Funtsak.**

Funts hauei esker, proiektu garrantzitsuak gauzatu ahal izan dira udalerrian; horrek erakusten du udal-gobernuak kanpoko finantzaketa lortzeko erakutsi duen kudeaketa eraginkorra eta Eibarrentzat beharrezkoak diren proiektu zehatzetan erabiltzeko ahalmena.



2025eko aurrekontuei buruzko memorian, jada zerrendatu nituen Next Generation funtsen finantzazioarekin une horretan egiten ari ziren proiektuak, zeinak erritmo handian egin diren 2025ean zehar; izan ere, exekuzioaren azken faseetan daude.

Honela:

- 1.- **Torrekuako anbulatorioa izandakoa birgaitze-lanak**, energiaren aldetik efizientea den eraikin bihurtzeko; eraikinak, beste zerbitzuen artean, Amañako adinekoentzako etxe berria hartuko du. Proiektua amaituta dago ia; bakarrik geratzen da azken ukituak ematea. Inauguraziona 2026 urte hasieran egitea dago aurreikusita.
- 2.- **Txonta auzoko eraikinen energia-birgaitze prozesua amaituta dago ia**; atarietako bat baino ez da geratzen, eraikuntza-enpresek egin beharreko erremateak egiteko zain.
- 3.- **Estaziño eta Azitain arteko trenbide gaineko pasealekua**, ETS Euskal Trenbide Sareak egindako obra, jada aste gutxi barru amaituta egongo dena.

## **2.- Debabarrena LJE (Lehentasunez Jarduteko Eremua)**

Debabarrena eskualdea Lehentasuneko Jarduketa Eremu (LJE) izendatzeak aukera eman digu osatzen dugun udalerrioi Eusko Jaurlaritzatik (24 milioi datozen 4 urteotan) eta, hala badagokio, Gipuzkoako Foru Aldunditik finantzazio osagarria lortzeko gure hirientzat eta gure biziagunentzat funtsezkoak diren trakzio-proiektuak gauzatzeko, denak ere Eskualdeko Plan Estrategikoaren barruan.

Finantzaketa honen helburua da gure herritarren bizi-maila eta -baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren egitasmo eraldatzaileak bultzatzen laguntzea; izan ere, proiektu horien tamaina dela-eta, oso zaila izango litzateke udalerriek Gobernuaren laguntzarik gabe lan horiek beren gain hartzea.

Eibarko kasuan, planak sei jarduera-ildo nagusi ditu: industria-modernizazioa eta industria-lurzoru eta -eraikinak berreskuratzea; dibertsifikazio ekonomikoa (turismoa, merkataritza eta kultura); enplegua eta lanbide-heziketa; hiri-berroneratzea eta babes soziala; eta ingurumena eta mugikortasun jasangarria.



Esparru horretan, Eibarko Udalak asmo handiko proiektu-sorta bat aurkeztu zuen 12 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa ekarriko duena, 2028ra arte. Jarraian, proiektu horiek azaletik deskribatuko ditut, kontuan hartuta ia guztiak jada abian daudela edo 2026an abiaraziko direla.

Industria modernizatzeari dagokionez, Eibarrek 1.750.000 euro jasoko ditu (2025-2028 artean, bi urteak barne) Matxaria industrialdeko ibilgailuen eta oinezkoen sarbidea hobetzeko, eta 910.000 euro Azitaingo industrialdean antzeko jarduketak egiteko. Gainera, Erisonoko parke teknologikorako sarbidea hobetuko da eta alternatiba berriak bilatuko dira bertara iristeko, haren garapena errazte aldera. Guztira, 840.000 euroko lagunza emango da. (2026 eta 2028 artean, biak barne)

Ekonomia dibertsifikatzeko ardatzaren barruan, Udalak lanean dihardu turismo-bulego bat sortzeko eta turismo-produktu eta -zerbitzu berriak garatzeko, bisita gidatuak eta MADE IN EIBAR barne; aurreikusitako inbertsioa 1.000.000 eurokoa da. (2025 eta 2028 artean, biak barne)

Aldi berean, 1.063.000 euro inbertituko dira (2025-2027, biak barne) Errebaleko merkatu-plazan, non erosketa-eredu berriak aztertu eta abian jarriko diren, eta egungo espazioa egokitutako dinamizatu den.

Kultura-eremua ere garrantzitsua da. Eibarrek 2.750.000 euro jasoko ditu (2025-2028, biak barne) Armagintzaren Museoari beste ikuspegi bat emateko, haren balio erantsia eta kultura- eta ondare-erreferente gisa duen eginkizuna indartzeko. Gure museoak potentzial handia du erakarpen kultural eta turistikoko gune bihurtzeko. Museoa erreferente izan daiteke Euskadin, eta gure historia eta gure iragana konta dezake, baina etorkizunean dugun zereginetan aldarrakatuz.

Enpleguaren eta lanbide-heziketaren arloan, 950.000 euro esleitu zaizkio (2025-2027 artean, biak barne) Armeria Eskolari, zeina teknologia robotiko eta adimendunen arloko erreferentziazko eta bikaintasuneko eskualde-zentro gisa finkatuko den (TREI), ekipamendua eskuratuz, irakasleak prestatuz eta adituak bertaratuz. Izan ere, funtsezko da ezagutzan, talentuan eta formazio aurreratuan inbertitzea.

Lehen aipatutako Eskualdeko Plan Estrategikoak, gainera, hiri-berroneratzearen eta gizarte-babesaren arloko jarduketa garrantzitsuak jasotzen ditu.

Eibarrek 1.000.000 euro jasoko ditu Larrañaga y Elorza eraikina erosteko eta birgaitzeko. Udalak bere funtsekin eskuratu du higiezina, eta aipatutako zenbateko jasotzeko zain dago.



Horri Ugartetxea eraikina gehitu behar zaio, zeina Txonta auzoaren berroneratze integraleko prozesuarekin lotutako erabileretara bideratuko den; guztira, milioi bat euro inbertituko dira.

Azkenik, ingurumenari eta mugikortasun jasangarriari dagokienez, alde batetik, funtsak jasoko dira Barakaldo kalea Estaziño eta Azitain arteko bideen gaineko pasealekuarekin lotuko duen igogailuaren % 50 finantzatzeko (728.881 euro), eta, bestetik, igogailu berri bat egingo da Torrekua kalean, Unibertsitateko geralekuaren parean, kale hori Amaña auzoarekin lotuko duena, Berdintasun Pasealekuan (700.000 euro, 2027-2028 urteak); igogailu horrek irisgarritasuna eta auzo horretako bizilagunen bizi-kalitatea hobetuko du.

Proiektu hauen inpaktua oso esanguratsua izango da. Jarduerek gure ehun ekonomikoaren lehiakortasuna hobetuko dute, zerbitzu publikoak indartuko dituzte, gure auzoak biziberrituko dituzte, eta lagungarriak izango dira Eibar irisgarriago eta jasangarriago bat lortzeko.

Debabarreneko LJEn sartutako proiektuetatik harago, 2026ko aurrekontuen zirriborroak 2025eko ekitaldiko aurrekontuek markatutako bideari jarraitzen dio. Inbertsio-ahalegin handia egiten ari gara gure hiri-ingurunea hobetzeko, hori baita lantzen ari garen hiri-proiektuaren ildo estrategikoa.

Hala, 2025ean zehar, amaitu egin ditugu Barakaldo kalea eta Estaziño eta Azitain arteko trenbide gaineko pasealekua lotuko dituen igogailuaren obrak. Igogailuak Elektrozikloseko etxeen irisgarritasuna hobetuko du, eta trenbideen azpiko egungo sarbidearen puntu beltza kentzea ahalbidetuko du.

Horren harira, Euskal Trenbide Sareak egindako pasealekuko obrak amaitzear daude memoria hau idazten ari naizen unean. Aurreikusten da inaugurazioa eta irekiera 2026ko lehen hiruhilekoan izango dela.

Era berean, duela aste batzuk hasi zen beste proiektu estrategiko bat, oinarrizkoa dena hiriaren ekialdea biziberritzeko, eta da Barrena kaleko HIJOS DE GABILONDO etxe-tailerraren eraberritze- eta biziberritze-lanena. Eraikin horren berritze-lanek (Horretarako, Eusko Jaurlaritzak duela 2 urte 5 milioi euro inguruko dirulaguntza eman zigun) ekarriko dute, alde batetik, eraikina erabili ahal izatea jarduera ekonomikoekin, prestakuntzarekin eta hirian eta eskualdean enplegua sustatzearekin lotutako eginkizunetarako. Eta, bestetik, ingurunea goitik behera eraldatzea ekarriko du: mendebaldean (Barakaldo kalearen amaieran) eta eraikinaren estalkian egoteko eta ibiltzeko gune zabal bat egingo da; horrek behar bezala erantzongo die hiriko alde horretako herritarrek eskatzen dituzten beharrei.



Halaber, eraikinak gune estali bat izango du (plaza), Errebalen dagoenaren antzekoa, herritarrek hainbeste eskatzen dituzten halako instalazioen premiei erantzungo diena. Helburua da HIJOS DE GABILONDO hiriaren ekialdeko foko berria bihurtzea eta auzoari biziberritzen laguntzea.

Era berean, 2025ean zehar, jarraitu dugu gure hiriko zenbati gune hobetzen eta irisgarriagoak egiten.

Alde batetik, Mutiola kalearen ingurua berrurbanizatzeko eta hobetzeko obrez ari naiz. Alegia, parkea eta bidea hobetuko dira, bai eta Bustinduitarren kalea ere, non erabat irisgarriak izango diren kale horren zati handi batean dauden atariak. Obra horiek behar bezala ari dira egiten, memoria hau idazteko unean, eta datozen hilabeteetan amaituko dira. Bestalde, une honetan, San Juan kale osteko parkearen birgaitze-obrak lizitazio-prozesuan daude.

Arragueta kaleko berrurbanizazio-lanak ere aipatu behar dira. Litzitazioaren aurreko lege-baldintzak gainditu ondoren, kale honetako 16. zenbakia eraisteko obra esleitu da, eta kalea berrurbanizatzeko lizitazio-prozesua azken fasean dago.

Obra estrategikoa da hiriarentzat; izan ere, hirigunearen eta ekialdeko eremuaren arteko lotura gisa balio duen kale enblematiko bat modernizatu ahal izango da, eta hiriaren kohesioa indartzen lagunduko du.

Nabarmendu nahi dut, puntu honetan, 2025. urtean gure auzoetan zentratu garela. 1.- Amañan, jubilatuen zentro sozial berriaren obrak amaitu dira, eta inauguraziona 2026ko lehen asteetan egingo da. Horrekin batera, goian aipatu dugun Bustinduitarren kalea berritzu da. 2.- Jardiñetako aparkalekua handitzeko obrak amaitu dira, eta martxan jarri da 31, 33, 35 eta 37 zenbakiak erabat irisgarriak izateko jarriko diren bi igogailuetako lehenaren proiektua. 3.- Urkin, Ubitxa kalean aparkaleku berri baten proiektua egin da; 4.- Ipuruan, Romualdo Galdos eta Santa Ines kaleen arteko irisgarritasuna hobetuko duten arrapalen proiektua egin da; eta, azkenik, hiriaren ekialdean, goian aipatutako proiektuak egin dira, eta horiei gehitu behar zaie Saratsuegiko irisgarritasunaren hobekuntza-proiektua.

Aurrekoa finkatuta, 62.105.744,47 euroko aurrekontu-zirriborroa aurkezten dugu, Eibarko herritarrek gaur egun dituzten azpiegiturak, instalazioak eta zerbitzuak mantentzeko; ekonomia- eta ekoizpen-ehunari laguntzeko; gure hirian dugun elkarte-sare ugari eta askotarikoari laguntzeko, kirol-klubak babesteko, eta gure hiri-ingurunea etengabe hobetzen jarraitzeko, Eibar hiri irisgarriagoa, erosagoa eta bizigarriagoa bihurtuz.



Jarraian azaltzen dira diru-sarreren eta gastuen kapituluak, zeinek aurrekontu-zirriborro honen zehaztapenen eta berezitasunen ikuspegi orokor egokia ematen duten.

## **II.- DIRU-SARREREN KAPITULUAREN EGOERA**

Aldez aurretik, eta 2026ko ekitaldirako aurrekontuen zirriborroan jasotako diru-sarreren aurreikuspena xehatzen hasi aurretik, 9. kapitulua (Finantza-Pasiboak) aipatuko dut labur-labur, dokumentu honetan ohikoa eta derrigorrezkoa den bezala.

Kapitulu horrek aukera ematen du, kredituaren bidez, aurrekontuak behin betiko orekatzea, eta, gure finantza-egoera orokorrera egokitutako zorpetze arduratsu batean oinarrituta, gure diru-sarreren gaitasun garbiak ahalbidetuko lituzkeenak baino gastu eta inbertsio gehiago egiteko.

Hori esanda, eta aipatutako 9. kapituluari dagokion zenbatekoa kontuan hartu gabe, zeinerako 2026rako 12.220.001,91 euro aurreikusi diren, aurtengo aurrekontu-zirriborro honek 49.885.772,56 euroko diru-sarreren aurreikuspena aurkezten du. 2025eko ekitaldian, kopuru hori 46.195.743,88 eurokoa zen, beraz, diru-sarreretan aurreikuspena aurreko urtean baino 3.690.028,68 euro handiagoa da.

Igoera hori, alde batetik, 2026rako aurreikusitako Udal Finantzaketa Foru Funtsari zor zaio, 26.151.988 eurokoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak berriki emandako aurrekontuak erakusten duenez. Zenbateko hori 2025eko ekitaldia ixteko aurreikuspena (25.151.277 euro) baino nabarmen handiagoa da (1.000.711 euro), eta hori guztia 4. kapituluan (Transferentzia Arruntak) islatzen da, aurrerago azalduko den bezala.

Horrez gain, zenbateko horri 738.576 euro gehitu beharko zaizkio, 2025eko ekitaldiko Foru Funtsaren behin betiko erregularizazioari dagozkionak. Funts horren ordainketa 2026an zehar jasoko da, eta, aurreikuspenen arabera, ekitaldi horretako diru-sarrera gisa egotziko da.

Puntu honetan, eta orain arte egin den bezala, azpimarratu behar dugu Foru Funtsak Gipuzkoako udalerrientzat duen garrantzia, izan ere, funts horrek gure hiriaren 2026rako aurrekontuko diru-sarreren guztizko kopuruan izango duen inpaktuak gainditu egiten du ekitaldi honetarako aurreikusitako diru-sarreren % 50.



Eta, bestalde, 7. Kapitulua (Kapital-Transferentziak) aipatu behar dugu, zeinaren zenbatekoa 3.434.862,74 euroka den (2025ean 5.493.837,79 euroko). Kapitulu honek jasotzen ditu beste erakunde publiko batzuek, batez ere Eusko Jaurlaritzak, Eibarko Udalaren alde egiten dituzten ekarpen ekonomikoak. Ekarpen horiek aukera ematen digute herrian beharrezkoak diren inbertsioei aurre egiteko; horrelakorik ezean, nekez ekin ahal izango genieke aurre guk bakarrik, lehen esan dudan bezala.

2026an aurre egin beharreko transferentzia arrunten igoera eta etorkizuneko gastu-ekitaldietarako transferentziak dira, azken batean, 2026ko aurrekontu-igoera (62.105.774,47 euro) justifikatzen dutenak, 2025ekoarekin alderatuta (55.783.189,99 euro).

Azkenik, azpimarratu nahi dut eta balioan jarri aurrekontuetan 2026ko ekitaldirako tokiko zergetarako eta hirigintza-jardueretatik eratorritako diru-sarreretarako aurreikusi den igoerak ere izan duela eragina, neurri txikiagoan bada ere.

2025ean, tokiko zergen igoera % 4koa izan zen. 2026an, berriro ere goranzko doikuntzak (% 2,5) egin ditugu tokiko zergetan.

2025ean bezala, zerga horien igoera, orokorra izan beharrean, oso moderatua eta selektiboa izan da —azterketa zehatz eta sakon baten emaitza— eta honako xede hauek izan ditu: egoera ahalik eta eraginkorrena izatea, herritarrengan izango duen eragina moderatua izatea, eta, azkenik, Udalak bere diru-sarrerak handitura dagozkion zerbitzu publikoei erantzuteko baliabide nahikoak bermatzea.

Hala, diru-sarreren kapitulu gehienetan igoera aurreikusten da, jarraian bakarka azalduko dudan bezala:

### **1. Kapitulua. Zerga zuzenak.**

2026ko ekitaldirako 8.647.889,20 euroko diru-sarrerak sartu dira aurrekontuetan (2025ean, 8.353.584,84 euro).

Igoera hau, gehienbat 2026ko Ordenantza Fiskaletan onartutako igoeraren ondorioz gertatu da. OHZ-z, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaz, Gainbalioaz eta Ekonomia-Jardueren gaineko Zergaz ari naiz.

### **2. Kapitulua. Zeharkako zergak.**

2. Kapituluari dagokionez (Zeharkako zergak), 2026ko ekitaldirako 760.000 euroko diru-sarrerak sartu dira aurrekontuan (2025ean, 850.000 euro).



Jakina denez, Kapitulu honetan jasotzen den kontzeptu bakarra Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarena da (EIOZ).

### **3. Kapitulua. Tasak eta bestelako diru-sarrerak.**

Kapitulu honek berriro ere gora egin du aurreko urtearekin alderatuta: 2025erako 3.287.101,46 euroko aurrekontua zuen, eta 2026rako 3.683.680,10 eurokoa.

Aurreko kapituluetan legez, kapitulu honetan sartzen diren kontzeptuetan egindako goranzko doikuntzek aukera ematen digute udalaren diru-sarreretan hobekuntza esanguratsua sartzeko.

### **4. kapitulua: Transferentzia arruntak.**

Kapitulu honek igoera handia izan du aurreko urtearekin alderatuta: 27.200.447,21 euro aurreikusi ziren 2025erako, eta 31.862.513,52 euro, berriz, 2026rako.

Kapitulu honetako funtsezko partida Udal Finantzaketaarako Foru Funtsa da, lehen ere aipatu dudana, 2.477.863 euroko igoera aurreikusten duena, 2025erako hasieran onartutako aurrekontuarekin alderatuta.

Kapitulu hau goragoko erakundeetatik —bai Eusko Jaurlaritzatik, bai Gipuzkoako Foru Aldunditik— programa edo ekimen hitzartuetarako (dagoeneko martxan daudenak edo martxan jartzekotan direnak) jasotzen diren transferentziekin osatzen da. Horien artean nabarmenzekoak dira, beren zenbatekoagatik, 480.107,11 euroko transferentzia Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastaroak emateko Udal Institutuan edo GLLetarako 557.352,00 euroko transferentzia, egoera ahulenean dauden familien beharrizanak estaltzeko funtsezko tresna, eta, dakigunez, toki-administrazioa arduratzen da horien kudeaketaz, eta autonomia-erkidegoko administrazioaren eskumena da beharrizan horiei aurre egiteko behar beste aurrekontu-ekarpen egitea.

Horiez gain, Blas Etxebarriako tutoretzapeko etxebizitzak egokitzeko egindako 429.310 euroko transferentzia nabarmendu behar da.

### **5. Kapitulua: Ondare-sarrerak.**

Gainerakoan antzera, kapitulu honek ere, udal-instalazioen alokairuen eta errentamendu-emakiden ondorioz likidatuko diren diru-sarrerak jasotzen dituenak, gora egin du aurreko urtearekin alderatuta: 2025erako 216.570,58 euroko aurrekontua zuen, eta 2026rako 302.627 eurokoa. Nolanahi ere, zenbateko erlatiboa duen partida bat da, termino absolutuetan.



## **6. Kapitulua. Inbertsio errealkak besterentzea eta hirigintza esku-hartzeetatik eratorritako beste sarrera batzuk.**

Kapitulu honek igoera nabarmena izan du, 2025ean aurrekontuan zituen 780.000 euroetatik 780.000 euro izatera pasatu baita 2026an.

Aurreikusitako zenbatekoa, besteak beste, udal-ondarea saltzeari eta/edo ondare horren gaineko administrazio-emakidak formalizatzeari dagokio, baita udalerrian aurreikusitako jarduketen hirigintza-aprobetxamenduei ere.

## **7. kapitulua: Kapital-transferentziak.**

Aurretik adierazi den bezala, Kapitulu hau pasatzen da 2025ean 5.943.839,79 euroko aurrekontua izatetik 2026an 3.434.862,74 eurokoa izatera.

Kapitulu honek jasotzen ditu beste erakunde publiko batzuek, batez ere Eusko Jaurlaritzak, Eibarko Udalaren alde ematen dituzten dirulaguntzak, eta herrian beharrezkoak diren inbertsioei aurre egiteko aukera ematen digutenak, hala nola Hijos de Gabilondo bezalako eraikinak birgaitzea edo Barakaldoko igogailu berria eraikitzea bezalako irisgarritasun-jarduerak, bakarka nekez egin ahal izango genituzkeenak.

Partidan egon den jaitsieraren arrazoia da Hijos de Gabilondo proiektuaren dirulaguntza dagoeneko 2025ean konprometitu dela.

## **8. kapitulua: Finantza-aktiboak.**

2026rako aurrekontua 2025erako bera da, alegia, 14.200 euro. Zenbatekoari begira, garrantzi gutxiko kapitulua da.

## **9. kapitulua: Finantza-pasiboak.**

2025ean Kapitulu honek zuen aurrekontua 9.587.446,11 eurokoa zen. 2026an, berriz, 12.220.001,91 eurokoa.

Sarreren eta gastuen arteko aurrekontu-oreka ezartzen uzten duen erraminta dugu finantza-pasiboa. Logikoki, erantzukizunez erabili beharreko erreminta da, eta azken urte hauetan horrela egin izanak aukera ematen digu zorpetze kontrolatua aurkezteko eta baita finantza-gaitasuna izateko ere, zeinak etorkizunari begira aurreikusten diren erronka batzuei aurre egiten uzten digun, errespetuz, erantzukizunez eta konfiantzaz.



Kontuan izan behar da 2026an inbertsioak aurreratu behar ditugula. Izan ere, inbertsio horien diru-sarreren kapitulua ondorengo ekitaldian egingo da, LJE funtsetatik eratorriak baitira, dokumentu honen lehen zatian adierazi dudan moduan, proiektu horiek, diruz lagundu daitekeen zenbateko eta hura jasotzeko epea zerrendatu ditudanean.

### **III. - GASTUEN KAPITULUAREN EGOERA**

2026. urtea egungo agintaldiaren hirugarren ekitaldia izango da, eta bigarren ekitaldi osoa PSE-EEren eta EAJ-PNVren arteko koalizio-gobernuarekin, zeinari esker, 2024aren amaieran hasitako baterako kudeaketa-eredua finkatu ahal izango den.

Egonkortasun politikoaren esparru honi esker, garrantzi handiko proiektu estrategikoak lantzen ari gara, egitasmo horiek onartu eta gauzatzeko beharrezkoia izaten baita gehiengoan sustengatua edukitzea.

Dokumentu honen lehen zatian aurreratu dudan bezala, 2026ko ekitaldirako aurrekontuen zirriborroa 62.105.744,47 eurokoa da, eta 2025eko ekitaldia 55.783.189,99 eurokoa izan zen; horrek 6.322.554,48 euroko igoera dakar.

Gorakada handi hori, funtsean, bi faktorek eragin dute, aurrerago behar bezala azaldu arren, jarraian aipatu behar ditudanak:

**1.- Inbertsio errealen gorakada:** Hiriaren proiektu eraldatzailearen aldeko apustu irmoa islatzen du. Proiektu horietako asko dokumentu honen lehen zatian eta 2025eko memorian iragarrita daude, eta 2026an bete-betean sartuko dira betearazpen-fasean.

**2.- Gestio- eta zerbitzu-gaitasuna indartzea:** Pertsonal eta ondasun arrunten partidak handitu egin dira, zerbitzu publikoen kalitatea eta estaldura hobetzeko.

Jarraian, aurrekontu-zirriborro honetan jasotako gastuei dagokien atalaren alderdi garrantzitsuenak zehaztuko ditut, zenbatekoaren arabera garrantzitsuenak diren kapituluei dagokienez.



Hala, adibidez, **Pertsonaleko gastuei buruzko 1. Kapituluari** dagokionez, 2026rako aurreikusitako igoera % 2,75 ingurukoa da 2025ekoarekin alderatuta. 2025ean 17.807.826,36 euroko aurrekontua izan zuen, eta 2026ko aurrekontu-zirriborroan kapitulo hau 18.296.907,34 eurokoa da.

489.080,98 euroko igoera hau lotuta dago Giza Baliabideen Plan Estrategikoa (Errelebo Plana/Mentoretza) finkatzearekin eta gizarte-zerbitzuen, hirigintzaren eta administrazio orokorraren arloetako premia berriei aurre egin behar izatearekin.

Gogora dezagun Giza Baliabideen Planak 6 hilabeteko mentoretza-programa bat aurreikusten duela kasu gehienetan —luzeagoa ere izan daitekeena—. Programa horretan, erretiroa hartuko duen langileak eta haren eginkizunak hartu eta erreleboa egingo duenak batera egongo dira aldi batez; hortik partidaren igoera.

**2. Kapituluak, ondasun arruntak eta zerbitzuei buruzkoa,** nabarmen handitu da. 2025eko aurrekontuen zirriborroan 18 milioi euro inguru aurreikusi ziren, eta zirriborro honek 19.348.798,01 euro aurreikusten ditu kapitulo honetarako.

Hazkunde horren (1,35 milioi euro inguru) arrazoia hauexek dira: zerbitzuan jarritako azpiegitura berriak mantentzea, energia-kostuak handitzea eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea bermatzeko beharrezkoak diren kanpoko lanak kontratatzea, hala nola garbiketa edo segurtasuna, batzuk aipatzearen.

**6. kapituluak (inbertsio errealkak)** izan du hazkunderik handiena: 13.064.121,91 euro 2025ean, eta 14.828.639,19 euro 2026an. Gehikuntza horren (1.764.517,28 euro, hau da, % 13,51) arrazoia da hirirako funtsezkoak diren proiektuak gauzatu behar direla, eta horietako batzuk behar bezala aipatu dira jada.

Alde batetik, HIJOS DE GABILONDO eraikina birgaitzeko, 2026ko ekitaldiari dagokion aurrekontu-zirriborroan 4.183.224,19 euroko partida jasotzen da.

Bestalde, 2026ko ekitaldirako aurrekontu-zirriborro honek 5.080.400 euro bideratzen ditu gure hiriko inguruneak eta irisgarritasuna hobetzen.



Hala, zenbateko horretan, beste proiektu batzuen artean, hauxek daude jasota:

- Parking berri bat Ubitxan, 100 bat ibilgailurentzako edukiera izango duena, eta xede duena aparkaleku-plaza gehiago sortzea Urkin eta Ubitxan.
- Txaltxazelai eta Eibarko Txikito birnaturalizatza, modernizatza eta hobetza; egitasmo honekin, gune emblematiko bat berreskuratu ahal izango da oinezkoentzat.
- Igogailu berri bat (Corte Inglesean dagoenaren osagarri), aukera emango duena Egogain Isasiko goialdearekin lotzeko. (LJ Erekin partzialki finantzatutako proiektua)
- Jardiñetan, martxan jarriko dugu kale horretako 31, 33, 35 eta 37 zenbakiak erabat irisgarri egingo dituzten bi igogailuetako lehena.
- Azitaingo industrialdean ibilgailuen irisgarritasuna hobetzea: esku hartuko da industrialdeko zirkulazioa, bereziki kamioiena, zaitzen duten bihurguneetan. (LJ Erekin partzialki finantzatutako proiektua)

Aurrekoari beste inbertsio-partida batzuk gehitu behar zaizkio, 2026ko ekitaldiari dagokion aurrekontu-zirriborroaren luze-zabalean banatuak, hala nola ikastetxeetako inbertsioak, kultura-instalazio publikoak, hiri-inguruneko obra txikiak, parkeen edo hiri-altzarien ekipamendua eta hobekuntza. Inbertsio horiek guztiak osatzen dute kapitulu hau, adierazitako zenbatekoa osatu arte.

**4. kapituluari dagokionez (transferentzia arruntak),** 374.440,31 euroko igoera eduki du, eta 6.401.687,42 eurokoa izatera iritsi da. Gorakada hori lotuta dago, Udal Finantzaketa rako Foru Funtsaren igoerarekin eta gizarte-programetarako (GLL, etxeko laguntza, lankidetza) eta sustapen ekonomikorako transferentziekin (DEBEGESA, sariak, enpresentzako laguntza eta merkataritza).

**9. kapituluari dagokionez (pasibo finantzarioak/zorra),** dirusarreren egituraren jasotzearen arrazoia udal-kontuak orekatzea da. Ildo horretatik, gaineratu nahi dut ezen, beti egin den bezala, 2026ko ekitaldian zorpetze-politika arduratsu eta kontrolatuari eutsiko zaiola, azken urteetako ibilbidearekin bat etorriz.



Ezin dugu ahaztu **landa-azpiegiturara bideratutako partida**, zeina, aurreko ekitaldietan bezala, 350.000 eurokoa izango baita; hori guztia Eibarko baserritarrak ordezkatzen dituen Andirao elkartarekin 2023an lortutako akordioan oinarrituz, zeinaren arabera, 2027ra arte, zenbateko hori izango baita urtero ezarriko den aurrekontua.

Gehiegi ez luzatzeagatik eta aurreko guztia behar bezala azaldu ondoren, memoria hau amaitzeko, oso modu orokorrean aipatu nahi nituzke 2026ko ekitaldirako aurrekontuen zirriborroa egituratzet duten lehentasunezko bost ardatzak:

- 1. Eibar, hiri modernoago, bizigarriago, jasangarriago eta seguruagoa:** Inbertsio handiak hiri-birgaitzean (Gabilondo), irisgarritasunean (igogailuak, arrapalak), espazio publikoetan (berrurbanizazioak) eta ingurumenean (birnaturalizazioa, KEJEP, baso-kudeaketa), segurtasunean (trafiko-kamerak instalatzeko proiektua) eta hiri-mantentzean eta azpiegitura publikoetan.
- 2. Kohesio soziala eta pertsonen babesia:** Gastua indartzea gizarte-zerbitzuetan, adinekoen arretan, mendekotasunean, genero-berdintasunean, gazterian eta bazterkeriaren aurkako borrokan. Gizarte Larrialdiarako Laguntzetarako (GLL) partida, aurten ere, lehentasunezkoa da 2026ko ekitaldirako aurrekontu-zirriborroan.
- 3. Bultzada ekonomikoa eta enpleguaren sustapena hirian:** Enplegua sustatzeko programak sendotzea, eta ekintzailetza, enpresa-berrikuntza eta tokiko merkataritza babestea, DEBEGESAren bidez eta zenbait dirulaguntza-erroren bidez.
- 4. Kultura, Euskara eta Kirola:** Eskaintza kulturala sendotzea (Coliseoa, Portalea, Museoa, Liburutegiak), kirol-talde eta -klubei laguntzea eta apustu irmoa euskararen sustapenean eta irakaskuntzan.
- 5. Administrazioaren Modernizazioa eta Zerbitzuak:** Eraldaketa digitalean inbertitzea, udal-eraikinen energia-efizientzia hobetzea eta Udalaren azpiegiturak eta zerbitzu orokorrak egokitzea.



#### **IV. - UDAL-TALDEEKIKO NEGOZIAZIOA**

Hasieran adierazi bezala, Memoria honek ere balio du Udaleko beste alderdi politiko batzuekin aurrekontua onartzeko Alkatetzak izan ohi duen negoziazio-prozesuaren berri emateko.

2026ko ekitaldirako aurrekontuen zirriborroa egungo koalizio-gobernua osatzen duten alderdien (PSE-EE eta EAJ-PNV) lanaren emaitza da, eta, beraz, aurrekontua onartzeko behar den gehiengoa dute: 14 botu 21eko guztizkotik.

Aurrekoa gorabehera, koalizio-gobernu honek egokitzat jo du zuzenketak negoziatzeko prozesu bat irekitzea EH-BILDUREkin eta ELKARREKIN PODEMOS-EIBARREkin, hala badagokio, hiriaren eta bizilagunen interes orokorrekin bat datozen ekarpenak sartzeko.

Dokumentu hau idatzi den egunean, bi talde horiekin izandako negoziazio-prozesuan ez da adostasunik egon, eta, beraz, onartzeko aurkeztuko den aurrekontu-zirriborroa koalizio-gobernua osatzen duten taldeek hasieran aurkeztutakoa izango da. Horrek ez du esan nahi beste une batzueta eta beste gai batzueta ezingo dugunik akordiorik lortu hiriaren onurarako badira.

#### **V.- ONDORIA**

Amaitzeko, Memoria honek 2026ko Aurrekontuaren alderdirik esanguratsuenak batu nahi izan ditu; kapitulu bakoitzaren bilakaera eta portaera aztertu nahi izan du, aurreko urteetakoekin konparatuta eta zein testuingurutan murgiltzen garen ikusita.

Zirriborro hau urrats irmoa da iragarritako eraldaketa-proiektuak gauzatzeko. Aurrekontua nabarmen handitu da, eta inbertsioan eta zerbitzu publikoak indartzean fokalizatu da. Aurrekontu-zirriborro errealista, arduratsua eta anbiziotsua da, Eibar hiriaren bizi-kalitatea hobetzeko, bertako ekonomia bultzatzeko eta etorkizuneko erronketarako prestatzeko diseinatua, eta egonkortasun politikoaren eta erakundeen adostasunaren sostengua duena.



Hitz gutxitan esanda, koalizioko udal-gobernuaren ahaleginaren emaitza da, gure hiriaren erronka garrantzitsuenetan aurrera egiten jarraitzeko pentsatua eta diseinatua, zeharkako ikuspegi batetik, baina Eibar hobea lortzeko asmo argiarekin inor atzean utzi gabe.

Denok ulertzen badugu Eibar dela gure helburua, Eibarren alde lan egin behar dugula eta Eibar dela benetan axola duena, zalantzarik gabe, bide egokian gaude, eta 2026ko aurrekontu hauek aurrera egiten lagundi behar digute.

Eibarren, 2026ko abenduaren 10ean.

**ALKATEA  
JON IRAOLA IRIONDO**